

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2024ko uztailaren 27tik irailaren 06rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2024/07/29

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2024ko uztailaren 18koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiak emana, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baitira aparkaleku eta garajeen sektorearen esparru nazionalako VII. hitzarmen kolektibo orokorraren 2024. urterako soldata-taulen eguneraketa. **15638 xedapena- 2 or.**
- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** 2024ko uztailaren 18ko Ebazpena, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita biltegi handien sektoreko hitzarmen kolektiboko 2024ko soldata-igoerak berraztertzeako akordioa eta onartzen baitira hitzarmen kolektibo horretako 2025eko behin-behineko soldata-taulak. **15640 xedapena- 3 or.**

2024/07/31

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** 2024ko uztailaren 24ko Ebazpena, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita gaixoen eta istripua izan duten pertsonen osasun-garraioaren sektoreko enpresen eta langileen hitzarmen kolektiboko lanaldiari buruzko arbitraje-laudoa. **15837 xedapena- 15 or.**
- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2024ko uztailaren 19koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baitira hegaztien eta beste animalia batzuen haztegiatarako estatuko hitzarmen kolektiboaren 2023. urterako behin betiko soldata-taulak eta 2024. urterako behin-behinekoak. **15838 xedapena- 6 or.**

2024/08/22

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2024ko abuztuaren 12koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiak emana, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita Espainiako dantzaleku,

diskoteka, aisialdi-lokal eta ikuskizunetako langileen estatuko hitzarmen kolektiboaren aldaketa. 17222 xedapena- 20 or.

2024/08/27

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2024ko abuztuaren 12koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita Espainiako Burtsa eta Merkatuekin lotutako enpresen hitzarmen kolektiboa. 17358 xedapena- 57 or.

2024/08/30

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2024ko abuztuaren 20koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita administrazio-gestorien estatuko IX. hitzarmen kolektiboa. 17575 xedapena- 40 or.

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2024/08/13

- **EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGUA.** 2024-2027 urteetarako Gipuzkoako Zur-Industriaren hitzarmen kolektiboa. 5793 xedapena- 35 or.

2024/08/28

- **EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGUA.** Gipuzkoako naturguneetako salbamendu eta sorospeneko I. hitzarmen kolektiboa. 6183 xedapena- 28 or.

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2024/07/31

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Nazioarteko tratatuak.** Eraikuntzako segurtasunari eta osasunari buruzko hitzarmenera atxikitzeko tresna, Genevan egina, 1988ko ekainaren 22an. 15700 xedapena- 13 or.

- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA. Antolamendua.** 759/2024 Errege Dekretua, uztailaren 30ekoa, ministerioetako departamentuen oinarritzko egitura organikoa arautzen duen abenduaren 15eko 1009/2023 Errege Dekretua aldatzen duena. **15702 xedapena- 3 or.**
- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA. Gailu elektrikoak eta elektronikoak.** PJC/802/2024 Agindua, uztailaren 29koa, zeinaren bidez aldatzen baita, polibinil kloruro zurrun balorizatua daukaten ate eta leiho elektriko eta elektronikoen plastikozko profiletan kadmioa eta beruna erabiltzearen salbuespenei dagokienez, tresna elektriko eta elektronikoetan substantzia arriskutsu jakin batzuk erabiltzeko murrizketei buruzko martxoaren 22ko 219/2013 Errege Dekretuaren III. eranskina. **15703 xedapena- 3 or.**

2024/08/01

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Nazioarteko tratatuak.** Nekazaritzako segurtasunari eta osasunari buruzko hitzarmenera atxikitzeko tresna, Genevan egina, 2001eko ekainaren 21ean. **15857 xedapena- 10 or.**
- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Gizarte Segurantzza.** ISM/812/2024 Agindua, uztailaren 26koa, zeinaren bidez aldatzen baita ISM/386/2024 Agindua, apirilaren 29koa, zeinaren bidez arautzen baita Gizarte Segurantzarekiko hitzarmen berezia praktikaldi hauek egiteagatiko kotizazioa zenbatzeari dagokionez: 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateratuko berrogeita hamabigarren xedapen gehigarrian arautzen diren prestakuntza-praktikak eta kanpoko praktika akademikoak, hura indarrean sartu aurretik egindakoak. **15859 xedapena- 6 or.**

2024/08/02

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Ordezkaritza parekidea.** 2/2024 lege Organikoa, abuztuaren 1ekoa, ordezkariitza parekideari eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatuari buruzkoa. **15936 xedapena- 36 or.**
- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Antolamendua.** 2/2024 Legea, abuztuaren 1ekoa, zeinaren bidez sortzen baita trenbideko, itsasoko eta abiazio zibileko istripuen eta gorabeheren Ikerketa Teknikorako Agintaritza Administratibo Independentea. **15937 xedapena- 42 or.**

- **KANPO ARAZOETAKO, EUROPAR BATASUNEKO ETA LANKIDETZAKO MINISTERIOA. Nazioarteko administrazio-akordioak.** Portugalgo Errepublikaren eta Espainiako Erresumaren arteko nazioarteko akordioa, Lanzaroten 2023 martxoaren 15ean sinatua, Monçãoren (Portugal) eta Salvaterra do Miñoren (Espainia) artean dagoen Miño ibaiaren gaineko nazioarteko zubiaren zutabeak eta trabesak birgaitzeko eta zubi horretan bizikleta-bide bat eta oinezkoen pasabide bat jartzeko aukera aztertzeko. 15938 xedapena- 6 or.
- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Gizarte Segurantza.** Ebazpena, 2024ko uztailaren 19koa, Gizarte Segurantzaren eta Pentsioen Estatu Idazkaritzarena, zeinaren bidez ezartzen baita Gizarte Segurantzaren prebentzio-jardueren plan orokorra, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan diharduten mutualitateek 2025. urterako jarduera-plangintzetan garatu beharrekoa. 15940 xedapena- 10 or.

2024/08/05

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Botere Judiziala. Fiskaltza.** 3/2024 Lege Organikoa, abuztuaren 2koa, zeinaren bidez aldatzen baitira Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa eta Fiskaltzaren Estatutu Organikoa arautzen duen abenduaren 30eko 50/1981 Legea. 16127 xedapena- 8 or.
- **KANPO ARAZOETAKO, EUROPAR BATASUNEKO ETA LANKIDETZAKO MINISTERIOA. Nazioarteko tratatuak.** Espainiaren adierazpenak zigor-arloko laguntza judizialaren Europako Hitzarmenari, haren Protokolo Gehigarriari eta haren Bigarren Protokolo Gehigarriari buruz. 16128 xedapena- 2 or.
- **OGASUN MINISTERIOA. Zergak.** HAC/819/2024 Agindua, uztailaren 30ekoa, abenduaren 29ko EHA/3786/2008 Agindua aldatzen duena, zeinaren bidez onetsi baitziren Balio Erantsiaren gaineko zergaren 303 eredia (Autolikidazioa) eta Balio Erantsiaren gaineko zergaren 308 eredia (itzulketa-eskaera: Baliokidetasun-errekargua, BEZaren araudiaren 30 bis artikulua eta noizbehinkako subjektu pasiboak), eta zeinaren bidez aldatu baitziren hileroko autolikidazioaren 322 eredia (banakako eredia), hileroko autolikidazioaren 353 eredia (eredu erantsia) eta beste zerga-arau bat onartzen dituen azaroaren 23ko EHA/3434/2007 Aginduaren I. eta II. eranskinak. 16129 xedapena- 10 or.

2024/08/07

- **DEFENTSA MINISTERIOA. Substantzia kimikoak.** DEF/828/2024 Agindua, uztailaren 29koa, defentsa-arrazoiak direla medio substantziak, nahasteak edo halakoak dituzten gaiei buruzko araudi jakin bat kudeatzeko prozedura arautzen duena. **16329 xedapena- 5 or.**

2024/08/12

- **HEZKUNTZA, LANBIDE HEZIKETA ETA KIROLEKO MINISTERIOA. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Batxilergoa.** 2024ko abuztuaren 6ko Ebazpena, Hezkuntzako Estatu Idazkaritzarena, 2024ko uztailaren 3ko Ebazpenean atzemandako hutsak zuzentzen dituena. Ebazpen horren bidez, Batxilergoko lehen maila baliozkotzeko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko Espainiako gradudun tituluak homologatzeko banakako kredentzialen batez besteko notari buruzko informazioa ezartzen da, eta hura kalkulatzeko jarraibideak ematen dira. **16687 xedapena- 1 or.**

2024/08/21

- **OSASUN MINISTERIOA. Substantzia eta produktu psikotropikoak.** SND/884/2024 Agindua, abuztuaren 14koa, substantzia berriak sartzen dituena substantzia eta prestakin medizinal psikotropikoak eta haien fabrikazioaren, banaketaren, preskripzioaren eta ematearen fiskalizazioa eta ikuskapena arautzen dituen urriaren 6ko 2829/1977 Errege Dekretuaren 1. eranskinean. **17152 xedapena- 4 or.**

2024/08/24

- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Itsasoko eta osasuneko lanbide-heziketa.** ISM/890/2024 Agindua, abuztuaren 20koa, honako hau aldatzen duena: TMS/693/2018 Agindua, ekainaren 28koa, zeinaren bidez garatzen baita 292/2018 Errege Dekretua, maiatzaren 18koa, Itsasoko Gizarte Institutuaren itsasoko eta osasuneko lanbide-heziketara sartzeko prozedura eta heziketa hori emateko araubidea arautzen duena. **17282 xedapena- 2 or.**

2024/08/28

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. Nekazaritzako lurrak.** 840/2024 Errege Dekretua, abuztuaren 27koa, nekazaritzako lurretako elikadura jasangarrirako arauak ezartzen dituena. **17371 xedapena- 7 or.**

2024/08/29

- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA. Antolamendua.** 611/2024 Errege Dekretua, uztailaren 2koa, zeinaren bidez aldatzen baita maiatzaren 12ko 663/1997 Errege Dekretua, Arma Kimikoak Debekatzeko Agintaritza Nazionalaren osaera eta funtzioak arautzen dituen. **17485 xedapena- 4 or.**
- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Antolamendua.** TES/904/2024 Agindua, abuztuaren 27koa, zeinaren bidez garatzen baita Hitzarmen Kolektiboetarako Aholku Batzorde Nazionala arautzen duen irailaren 27ko 1362/2012 Errege Dekretua, erakunde sindikal eta enpresarialen kidetzen izendapenari dagokionez. **17486 xedapena- 3 or.**

2024/08/30

- **TRANSFORMAZIO DIGITALERAKO ETA FUNTZIO PUBLIKORAKO MINISTERIOA Antolamendua.** Honen akats-zuzenketa: 718/2024 Errege Dekretua, uztailaren 23koa, Osasun Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa garatzen duena. **17531 xedapena- 1 or.**

2024/09/04

- **BARNE MINISTERIOA. Trafikoa, ibilgailu motordunen zirkulazioa eta bide-segurtasuna.** INT/914/2024 Agindua, irailaren 2koa, gidabaimen edo gidalizentzia baten titularrentzako sentsibilizazio- eta berreziketa-ikastaroak arautzen dituen. **17780 xedapena- 11 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2024/07/30

- **OSASUN SAILA.** AGINDUA, 2024ko uztailaren 1ekoa, Osasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan mediku egoiliarren prestakuntza espezializaturako kanpo-txandaketak baimentzeko prozedura arautzen duena. **3691e xedapena- 13 or.**

2024/08/06

- **LEHENDAKARITZA.** 36/2024 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa, lehendakariarena, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko

sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Dekretua. 3800e xedapena- 3 or.

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

B.A.O.(Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2024/07/30

- **LAN ETA ENPLEGU SAILA.** Ebazpena, 2024ko uztailaren 18koa, Bizkaiko Lurraldeko Lan eta Gizarte Segurantzako ordezkariarena, 2025 urterako Bizkaiko Lurralde Historikoaren Tokiko eta Lurraldeko Festen Egutegia ezartzen duena. III-153 xedapena- 4 or.

2024/08/05

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** Bizkaiko Foru Aldundiaren 87/2024 FORU DEKRETUA, uztailaren 24koa, hiri eta/edo landa izaerako elementuak dituzten ondasun higiezinak zerga ondorioetarako balioztatzeko arau teknikoak onartu dituen. I-809 xedapena- 45 or.

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2024/08/16

- **EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGUA.** Ebazpena, 2024ko abuztuaren 2koa, Gipuzkoako Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde ordezkariarena, 2025. urterako Gipuzkoako lurraldeko tokiko jaiegunen egutegia ezartzen duena. 5893 xedapena- 4 or.

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2024/07/30

- **ERABAKIAK.** Datuak Babesteko Europako Ikuskatzailearen Erabakia, 2024ko uztailaren 18koa, DBEIaren barne-erregelamendua aldatzen duena, 2020ko maiatzaren 15koa [2024/2022]. L 2022 xedapena- 4 or.

2024/08/12

- Justizia Auzitegiaren Prozedura Erregelamenduaren aldaketak [2024/2094]. L 2019 xedapena- 7 or.
- Auzitegi Orokorraren Prozedura Erregelamenduaren aldaketak [2024/2095]. L 2095 xedapena- 22 or.
- Auzitegi Orokorraren Erabakia, 2024ko uztailaren 10ekoa, e-Curia aplikazioaren bidez idazki prozesalak aurkeztu eta jakinarazteari buruzkoa [2024/2096]. L 2096 xedapena- 4 or.

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - BILBAO